

Eihera ttipi sorgindua



Egun batez, Lorentxak amari galdegin zion :

– Ama, zergatik gazia da itsasoko ura ?

Amak Lorentxa altzoan hartu zuen eta ipuin hau kontatu :

5 "Duela aspaldi, mutiko **xintxo** batek sorgin baten ezagutza egin zuen. Mutiko hura Mikel deitzen zen eta oso bihotz onekoa zen.

Sorginak erran zion :

– Mikel! Zu oso bihotz onekoa zara eta zoriontsu izaita merezi duzu. Eihera ttipi hau harrazu. Zerbait nahi duzularik, galde iezaiozu : "Eihera ttipi, eihera ttipi, gauza hau egizu, laster egizu."

10 Eiherak eginen dizu. Gelditzeko "Zirt! Zart! Zurt! Aski dut!" erraiozu eta eihera ttipia berehala geldituko da.

– Milesker! Milesker! – **ihardetsi** zuen Mikelek atsegin handirekin. Sorgina desagertu zen.

15 Mikel etxera joan zen. Etxe xahar batean bizi zen. Eihera lurrean pausatu zuen eta erran zion :

– Eihera ttipi, eihera ttipi, etxe eder bat egizu eta laster egizu !

Eihera lanean hasi zen : etxe eder berri bat egin zuen, ate, leiho, kebidexuxen eta guzi. Teilatu kaskoan, telebistaren antena kokatu zuen.

20 – Zirt! Zart! Zurt! Aski dut – erran zuen Mikelek. Eta eihera ttipia gelditu zen.

Baina Mikelek pentsatu zuen :

– Kabalak ere behar ditut !

25 Eihera ttipiak egin zizkion : ardiak, zaldiak, behiak, oiloak... xakurra eta gatua ere bai.

Mikelek bere baitan :

– Etxe ederra dut, kabalak ere bai, orain eihera sorgindua **ganberan** gordeko dut.

xintxo : zuzen. Jende zintzoak edo xintxoak zuzentasunez jokatzeko du.

ihardetsi : erantzun.

ganberan : logelan.

Eta gogoa alai, etxeko animalien bazkatzen hasi zen.

– Egun on, Mikel! Zer duzu etxe eder hori? Nondik dituzu kabala horiek oro? – galdegin zion Anderrek. Ander, Mikelen anaia zaharrena zen.– Nik ere holako etxe ederra nahi nuke!

Mikelek bihotz ona zuen eta anaiari dena salatu zion eihera erakutsiz. Baina orduan Anderrek eskutik ebatsi zion eihera sorgindua eta lasterka etxera eramán.

gose hamikatua zen: biziki gose zen.

Din, dan, din, dan... elizako dorreak eguerdi jo zuen. Ander **gose hamikatua zen.**

– Eihera ttipi, eihera ttipi! Gose naiz, eltzekari goxoa egizu eta laster egizu!

Eihera eltzekariaren egiten hasi zen: patatak, aza, porruak, pastenagreak ur irakinean egosi zituen. Denbora guti barne salda goxoa egin zuen.

Anderrek eihera ebatsi zuen baina geldiarazteko formula batez ez ikasi. Oihuka hasi zen:

– Geldi! Geldi! Aski! Aski!


Debaldetan. Eihera ttipia ez zen gelditzen: beti ari zen salda egiten... beti gehiago! oraino gehiago!

Eltzekaria eltzetik atera zen...

Eltzekariak mahaia estali zuen...

Eltzekaria lurrera isuri zen...

Kanpoan errekaen itxura hartu zuen. Anderren kabala guziak itozituen, igerika dakiten ahateak salbu.



Anderrek eihera hartu zuen eta anaiaren etxera joan zen. Mikelek erran zuen :

55 – Zirt! Zart! Zurt! aski dut.

Eta eihera gelditu zen.

Hilabete zenbait iragan ziren. Mikelek eihera ez zuen erabiltzen.

Anderrek ere ez. Orduan Manex arrantzariari eman zioten.

60 Manexek txalupan **jarraikiarazi** zuen. Egun hartan, arrain asko hartu zuen : sardinak, antxoak, txitxarroak, atunak... Eta arrainak portura ekarri aitzin gatzean ezarriko zituela pentsatu zuen.

– Eihera ttipi, eihera ttipi, gatz egizu eta laster egizu!

65 Eihera sorgindua gatz egiten hasi zen. Manexek aski gatz bazuela erabakirik, eihera geldiarazi nahi zuen. Baina hitz sorginduak ahantziak zituen.

– Zort! Zirt! Zapart! Ziliport! Zirikazak!...

Eihera ez zen gelditzen.

Txalupa gatzez bete-betea zen eta Manex beldurtzen hasi zen.

– Ez dut txaluparekin eta arrainekin urperatu nahi!


70 Manexek eihera hartu zuen eta itsasora bota zuen.

Geroztik, eihera sorgindua itsaso zolan da, beti gatz egiten ari... gatz egiten, gau eta egun, uda ala negu, sekula gelditu gabe."

75 – Orain, Lorentxa gaixoa, badakizu zergatik itsasoa gazia den.

jarraikiarazi: segiarazi.

Ipuin herrikoia



1 IRAKURGAIA ULERTZEN DUT


- Zer jakin nahi du Lorentxak? Erantzuna badakizua?
- Zergatik erran daiteke sorgindua dela eihera?
- Zer egin du Anderren etxean?
- Ongia ala makurra egin du eiherak Anderren etxean? Zergatik?
- Gatza zertako erabiltzen dute arrantzaleek?
- Zergatik eihera ttipia gatz egitetik ez da gelditzen?
- Itsasoko ura gazia izaitea egiazki eihera sorginduarengatik dea?

2 HIZKUNTZA ETA GRAMATIKA

Hiztegia

► Hona itsas-animalia zenbait. Izenak eta zenbakiak elkarlot. Marrazkien ondoko letrek lagunduko zaituzte.

sardina izokina atuna txirla legatza otarraina



marrazkiak : © TES

► Erranaldi hauek berridatz hutsuneak betez. Aditz laguntzailea iraganean emazu :

- Nik margotu
- Horiek dantzatu
- idatzi genuen.
- hautatu zenuten.
- Horrek moztu
- Zuk kantatu

Nik pentsatu nuen
 Hik pentsatu huen
 Horrek pentsatu zuen
 Zuk pentsatu zenuen
 Zuek pentsatu zenuten
 Guk pentsatu genuen
 Haiek pentsatu zuten